

* Milaka lagunek agurtu eta omendu dute Mallabian Eugenio Aranburu HBko kidea

«Kartzelan nahiz kalean, herriaren erronkei aurre egiteko konpromezu argia dugu»

Mallabiko plaza eta inguruak jendez bete ziren atzo Eugenio Aranburu 'Txo' HBko Mahai Nazionaleko kideari azken agurra emateko eta omenaldian parte hartzeko. Hil-kapera udaletxean jarri zuten eta arratsaldean jende ugari iragan zen gorpua aurretik. Zazpi eta erdietan plazara jaitsi zuten eta omenaldia egin zioten.

Iñaki Uriarte / Mallabia

MILAKA lagun bildu ziren atzo arratsaldean Mallabian, Eugenio Aranburu HBko Mahai Nazionaleko kide eta LABeko delegatuaren omenaldian. Aranburu astelehen eguerdian urkatuta agertu zen familiaren baserrian, Auzitegi Gorenean deklaratzera deitua zegoen egunean.

Arratsaldeko 16:00etan iritsi zen Mallabira Eugenio Aranbururen gorpua, eta bertako udaletxean jarri zioten hil-kapera. Arratsalde osoan jende ugari hurreratu zen azken agurra ematera, horien artean libre dauden HBko Mahai Nazionaleko kideak, LABeko Idazkaritza Nagusiko kideak eta ELA sindikatuko ordezkariak bat. Txalapartaren doinuak lagunduta jaitsi zuten udaletxetik jendez beteta zegoen frontoiko plazara, arratsaldeko 19:30etan. Ekitaldiaren hasieran, kartzelan eta erbestean dauden HBko Mahai Nazionaleko kideen elkartasun telegramen berri eman zuten.

Mahai Nazionalaren izenean, Marijose Anduezak hitz egin zuen eta berretsi zuen Mahai Nazionalaren konpromezua: «Kartzelan nahiz kalean, gure herriak dituen



HBko Mahai Nazionaleko eta LAB sindikatuko hainbat kide, Eugenio Aranbururen hil-kaperan.

XOUSE SIMAL

erronka guztiei aurre egiteko konpromezu argia dugu». Era berean, ezker abertzalearen aldeko askatasunaren aldeko apustua dagoela esan zuen. «Bide politziala nagusi den honetan, gatazka pil-pilean dagoen une honetan, oraindik argiago utzi nahi dugu Euskal Herriarentzat askatasuna lortu nahi dugula, lortu behar dugula», esan zuen.

Gatazka iraurarazi nahi dituztenak bakartu • Sofrimendu eta gatazkaren luzapena eskaintzen dutenen aurrean, ezker abertzaleko kide guztiei Euskal Herriako demokraziaren propagandista izan daitezzen dei egin zien Rafa Diezek. «Denok esan behar dugu argi non kokatzen den Euskal Herriako bake eta demokrazia etorkizuna, denok jardun behar dugu bide ho-

rretan sustatze dinamikak zabal daitezten. Bakartu egin behar ditugu etorkizunean gatazka eta errepresiora kondenatu nahi gaituztenak», esan zuen Diezek.

Diezek esan zuen «lan integraren beharra» behin eta berriz defenditu zuela Aranburuk. Ikuspegi horrek, sindikalismoan ezezik, HBko lanean Mahai Nazionaleko kide eta Mallabiko zinegotzi izatera eraman zuela gogorarazi zuen. LABen idazkari nagusiak esan zuenez, «errepresoaren aldeko apustua egin dutenak, Euskal Herriari dagozkion eskubideak ukatzen dituztenak» dira Txo Aranbururen heriotzaren «erantzuleak».

Ekitaldiaren amaieran, manifestazio egin zuten hilerriraino. Dena bukatutakoan, batzuek irauli egin zuten Euskadi Irratiaren autoa, eta barruan

zeudenak kanpora aterarazi.

Goizean Basurtuko ospitalean (Bilbo) autopsia egin zioten Eugenio Aranbururi. Zerraldoa arratsaldeko 15:00ak laurden gutxiagotan atera zuten tanatorioetik LAB sindikatuko buruki-deek. Kanpoan ikurrina, LABen bandera gorriak eta HBrenak zeramatzen berrehun bat pertsonak arku bat egin zioten autoraino. Lehenago dantzari batek ohorezko aurrekua dantzatu zion. Eusko Gudariak kantatu ondoren, auto ilara luze bat Durangorantz abiatu zen gorpua laguntzen. Bertan beste omenaldi txiki bat egin zioten Mallabira heldu baino lehen.

Aranbururen errautsak igandean Muinozgueren mendian zabaltzeko asmoa zuten senideek, baina epaileak oraindik ez du errausteko baimenik eman.

LAB ELArekin bilduko da azken jazoerei buruz gogoeta egiteko

Iñaki Uriarte / Bilbo. - LAB eta ELA bilera izango dute elkarrekin hausnartzeko azken gertakizunak eta ekimen bateratu baten antolaketa aztertzeko. Rafa Diezek azaldu duenez, «egoera politiko, ekonomiko eta sozialaren larritasunak ELA sindikatuarekin sakoneko bilera bat izatera behartzen gaitu, sindikatu biek ezagutzen dugulako testuinguru politiko honetan dugun erantzukizuna». LABeko burukidearen aburuz, egoera «larria» da eta ez badira «urrats tinkoak egiten hori gainditzeko larritasuna areagotu egingo da».

Dena den, Rafa Diezek ez zuen bilera horretan LABek izango duen jarrera edo proposamenen zehaztasunik jakinarazi. Bileran egiten den diagnostikoa- ren menpe utzi zuen hori.

Elkarrizketari ekiteko eskatu zuen behin eta berriz Rafa Diezek. «Ekai- nean urratsik egin balitz ETAk epe baterako ekimen armatuak gelditu eta negoziatiorako borondatea agertu zuenean, Esquive- len bitartez ustez zabalik zeuden elkarrizketak sa- boteatu ez balira, atzo eta egunotan izan ditugun gertakizun guztiak segu- ruenik ez ziratekeen ger- tatuko», esan zuen Diezek.

Testuinguru horretan, LABeko kideak dei egin zien EAJ, EA eta IUri ez daitezten «ikusle huts gisa» geratu. «Dei egiten diegu erasokor izan daitezten, ezker abertzalearekin diren bezala, eta Espainiako Estatuaren jokabide politi- koa baldintza dezaten, ez gaitzen betiko geratu ga- tazka egoeran».

LABeko burukideak dei egin zion euskal gizarteari negoziatiorako urratsak egin ditzan, bide hori jo- rratzekotan ezker aber- tzalearen garaipena baino gehiago gizarte osoaren garaipena izango dela- koan. «Bada garaia gizar- teak bakartu ditzan etor-

kizunean tentsioa, gataz- ka eta biolentzia izatera zigortu nahi gaituztenak», gaineratu zuen. Diezen us- tez, bada garaia elkarriz- keta eta negoziazio bideak zabaltzeko, beste ezere- zain egon gabe. Berorren ustez, euskal gizarteak gogor egin behar die ne- goziatzeko unea ez dela dioten tesiei, jokabide ho- rrek «etorkizunik gabeko etorkizunera» eramaten duelakoan.

Pako Aranburuk, HBko buru zendua anaiak, azaldu zuen Eugenio Aranburu ez zela geldi egoteko pertsona eta bizi- tza osoa eman zuela «herri hau askatzeko lanean». 16

urtetekin, LKIn sartu zen, eta gero 1982az geroztik, ezker abertzalean. Anaiak azaldu zuenez, Eugenio asteburuko manifestazio eta ekitaldietan izan zen, eta herenegun bertan urtebetetzea zuela-eta zo- riondu egin zuen telefonoz. «Uste genuen sendo zego- la, asumituta zuela erabat atzetik zetorren egoera, baina ikusten dut azken gertakizunak eta aurretik datozenak gainditzeko gai ez dela izan».

Vicente Villar Rodisa enpresako LABeko orde- zkariak esan zuen enpresa horretan 24 orduko gel- dialdia erabateko izan zen. X

Castañeda espetxeratu eta HBko beste lau mahaikide atxilotzeko egindua eman du Auzitegi Gorenak

■ Erkizia, Olarra eta Aizpurua

Gasteizera ekartzen baimendu du

Agentziak / Madril

KOLDO CASTAÑENA HBko Mahai Nazionaleko kidea atzo arratsaldean espetxeratu zuen Espainiako Auzitegi Gorenaren aginduz. Castañeda astelehen arratsaldean deitu zuten deklaratzera, baina Auzitegi Gorenean agertu ez zenez, atxilotzeko agindua eman zuen Jose Manuel Martinez Pereda epaileak.

Castañeda gaueko hamarrak laurden gutxitan atzer- man zuten HBren Iruñeko egoitzan. Polizia ugari igo zen egoitzara, eta epailearen agindua erakutsi ondoren es- kuak lotu eta furgioan sartu zuten. Castañedak uko egin zion deklaratzeari, eta epai- leak espetxera bidali zuen. talde armatuari lagundu izan- na leporatuta.

Castañeda atxilotu baino lehen Poliziak bortizki saka- banatu zuen Euskal Herriko Askatu plataformak Iruñean astelehenero egin ohi duen manifestaldia. Ondoren istu- luak izan ziren Alde Zahar- rrean. Poliziak indarrez hustu- zuen Jarauta kaleko Herriko Taberna, eta han zeuden gaz- te guztiak paretaren kontra jarri zituen. Hurbildu ziren argazkilariei ez zieten beren- lana egiten utzi, bultzaka eta irainka bidali zituzten har- dik. Poliziak hiru lagun atxi- lotu zituen, baina libre geratu ziren atzo. Zauriturik ere egon- zen.

Martinez Pereda epaileak Alberto de Lorenzo, Juanpe Plaza, Joseba Alvarez eta Jose Luis Elkoro HBko mahaiki- deak atxilotzeko ere agindu- zuen. Efe agentziak zabaldu- zuenez, Dena den, Elkorok hilaren 17a arte zuen atze- ratua deklarazio eguna. Beste hirurak atzo arratsaldean deitu zituzten deklaratzera, baina ez ziren Auzitegi Gore- nera joan - Alvarez Bruselan dago-. Gaurko Rufi Exeber- rria, Carlos Rodriguez eta Jon Idigoras daude deituta.

Bestalde, Auzitegi Gorenak baimena eman du Tasio Erkizia, Joxe Mari Olarra eta Itziar Aizpurua etzi Gasteizko Legebiltzarrerara ekar ditzaten. HBko hiru burukide horiek kartzelatik atera eta Gastei- zera ekartzeko eskaera Lege- biltzarrak berak bideratu- zuen, ostiraleko plenoan par- te hartzeko aukera izan de- zaten. Nafarroako Parlamen- tuak ere bideratu du Floren Aoz eta Adolfo Araiz HBko parlamentarioak Iruñeko kartzelara ekartzeko eskaera. Akusazio partikularrak, ber- rriz, horren kontra agertu di- ra. X